



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

2019ko APIRILAREN 29an EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

ALKATEA

Juan Felix Naberan Ozamiz jauna (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK

Julian Maria Uriarte Lamikiz jauna (EAJ-PNV)

Edorta Ibarra Basabe jauna (EAJ-PNV)

Edurne Murga Santisteban andrea (EAJ-PNV)

Aitziber Ribas Bilbao andrea (EH BILDU)

Jasone Basterretxea Oyarzabal andrea_(EH BILDU)

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK

Carlos Mendiola Ugalde jauna (EAJ-PNV)

IDAZKARIA

Amaia Abanzabalegui Aranguren

Astelehenean, bi mila eta hemeretzi apirilaren hogeita bederatzian, Udaletxeko bilkura aretoan, arratsaldeko seietan, bildu da Gauteviz Arteagako Udaleko Osoko Bilkura ohiko bileran eta lehenengo deialdian, aurretiaz horretarako egindako deialdiarekin bat eginez.

Osoko Bilkurako zinegotzi guztiak egon dira bileran. Bilerako presidentea alkate jauna izan da eta akta sinatu duen idazkari-kontu hartzailea bertan egon da.

Presidenteak bilera irekitzat jo du eta eguneko **GAI ORDENAN** azaldutako gaiak azertu dira:

Lehenengoa.- Udal hauteskunderen, Batzar Orokorren eta Europako Parlamentuaren hauteskunde mahaietarako zozketa publikoa; guztiak 2019ko maiatzaren 26an izango dira.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

2019ko apirilaren 2ko BOEn argitaratu zen udal, foru eta Europako Batasuneko hauteskundeak 2019ko maiatzaren 26an izango zirela, eta Hauteskundeetako Araubide Orokorraren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 26. artikuluekin bat eginez (aurrerantzean HAOLO), deialdiaren ondorengo hogeita bosgarren eta hogeita bederatzigarren egunen artean zozketa publiko bidez hauteskunde mahaietako kideak, presidenteak eta mahaikideak aukeratu behar dira hautesle guztien zerrendan oinarrituz, guztiek ere lege horretan ezarritako gaitasun baldintzak bete behar dituztelarik.

Udalbatza honetako Osoko Bilkurak aho batez honakoa **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Zozketa publikoa egin da hauteskunde mahaietarako presidenteak eta mahaikideak aukeratzeko, baita bakoitzaren ordezkioak izendatzeko ere.

Zozketa publikoan parte hartu dezaketen pertsonak izendatu aurretik, HAOLOren 26. artikuluekin bat eginez zozketa egin da Estatistikako Institutu Nazionalaren Conoce izeneko aplikazio elektronikoaren bitartez.

BIGARRENA. Zozketa egin ondoren hauteskunde mahaietarako honako pertsonak aukeratu dira:

01 BARRUTIA 001 SAILA U MAHAIA

Hauteskundeetarako lokalaren izena: Kultur Etxea

Helbidea: Herriko Plaza, 2 Gauegiz Arteaga.

- TITULARRAK

- Presidentea: M. C. A. M. andrea, NAN ***2926**.
- Lehenengo mahaikidea: I. A. O. jauna, NAN ***2427**.
- Bigarren mahaikidea: J. R. C. jauna, NAN ***4666**.

- ORDEZKOAK

- Presidentearen lehenengo ordezkioa: J. R. B. A. jauna, NAN ***6305**.
- Presidentearen bigarren ordezkioa: M. B. A. A. andrea, NAN ***6025**.
- Presidentearen hirugarren ordezkioa: Y. R. G. andrea, NAN ***2645**.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

- Presidentearen laugarren ordezkoa: J. I. A. A. jauna, NAN ***1582**
- Presidentearen bosgarren ordezkoa: V. C. M. andrea, NAN ***8648**
- Presidentearen seigarren ordezkoa: L. V. M. jauna, NAN ***7422**
- Presidentearen zazpigarren ordezkoa: E. V. V. andrea, NAN ***7073**
- Presidentearen zortzigarren ordezkoa: F. J. M. F. jauna, NAN ***5510**
- Presidentearen bederatzigarren ordezkoa: I. G. R. andrea, NAN ***9747**.
- Lehenengo mahaikidearen lehenengo ordezkoa: G. Z. Z. andrea, NAN ***8649**.
- Lehenengo mahaikidearen bigarren ordezkoa: M. N. G. B. andrea, NAN ***2634**.
- Lehenengo mahaikidearen hirugarren ordezkoa: E. M. B. L. andrea, NAN ***9282**
- Lehenengo mahaikidearen laugarren ordezkaria: M. U. I. andrea, NAN ***5069**
- Lehenengo mahaikidearen bosgarren ordezkoa: J. L. P. andrea, NAN ***5107**
- Lehenengo mahaikidearen seigarren ordezkoa: J. B. U. A. jauna, NAN ***2352**
- Lehenengo mahaikidearen zazpigarren ordezkoa: M. I. M. B. andrea, NAN ***8642**
- Lehenengo mahaikidearen zortzigarren ordezkoa: A. N. E. jauna, NAN ***6218**
- Lehenengo mahaikidearen bederatzigarren ordezkoa: I. B. G. andrea, NAN ***1796**
- - Bigarren mahaikidearen lehenengo ordezkaria: I. Z. A. andrea, NAN ***5421**.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

- - Bigarren mahaikidearen bigarren ordezkaria: M. P. U. R. andrea, NAN
***5349**.
- Bigarren mahaikidearen hirugarren ordezkaria: L. C. R. J. andrea, NAN
***3064**
- Bigarren mahaikidearen laugarren ordezkaria: V. A. Z. jauna, NAN
***3318**
- Bigarren mahaikidearen bosgarren ordezkaria: E. A. G. andrea, NAN
***3714**
- Bigarren mahaikidearen seigarren ordezkaria: E. J. U. andrea, NAN
***4365**
- Bigarren mahaikidearen zazpigarren ordezkaria: A. Z. M. jauna, NAN
***8541**
- Bigarren mahaikidearen zortzigarren ordezkaria: G. G. G. jauna, NAN
***0336**
- Bigarren mahaikidearen bederatzigarren ordezkaria: M. D. L. G. andrea, NAN
***8931**

HIRUGARRENA.- Interesatuei hiru eguneko epean jakinaraztea presidente eta mahaikide izendatuak izan direla.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Eremuko Hauteskunde Batzordeari.

Bigarrena.- Onestea, hala badagokio, 2019ko apirilaren 1eko osoko bilkurako akta.

Idazkariak 2019ko apirilaren 1eko bilerako aktaren zirriborroa aurkeztu du eta aho batez onetsi dute.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Hirugarrena.- Onestea, hala badagokio, Gauegiz Arteagako Udaleko Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen aginduaren aldaketa.

Ikusita: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2019ko apirilaren 4an argitaratu zen Ondasun Higiezi buruzko Zergaren maiatzaren 16ko 4/2016 Foru Agindua indarrean jarri zela; Foru Agindu hori Gauegiz Arteagako Udaleko Ondasun Higiezin Zerga arautzen duen Zerga Ordenantzaren oinarria da.

Ikusita: Eudelek eskakizun bat egin zuen 2019an udaleko Zerga Ordenantzan 4/2016 Foru Arauaren aldaketa jasotzeko: hala, zerga aldaketa hori sartu zen ezaugarri berezidun ondasun higiezinentzat (% 0,2ko gutxienekoa eta gehigarria eta gehieneko % 0,8koa).

Ikusita: 2019ko apirilaren 12an Informazio Batzordeak emandako aldeko irizpena.

Oinarria: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikuluan ordenantzak onesteko ezarritako prozedura.

Osoko Bilkurak aho batez honakoa **ONETSI DU:**

LEHENENGOA.- Gauegiz Arteagako Udalaren Ondasun Higiezin gaineko Zerga arautzen duen Ordenantzaren aldaketa hasiera batean onestea.

Ordenantzaren 3. artikuluan 4. paragrafo berri bat ezarri zen, hauxe hitzez hitz:

“4.- Honako hauek ez daude zerga honen menpe:

a) Errepideak, bideak eta itsasoaren eta lehorraren arteko jabari publikoko eta jabari publiko hidraulikoko ondasunak, baldin eta erabiltzaileentzako aprobetxamendu publikokoak eta doakoak badira.

B) Udalerrien jabetzakoak diren ondasun higiezin hauek:

- Erabilera publikorako diren jabari publikokoak.

- Udalak berak zuzenean kudeatzen duen zerbitzu publiko bati loturik dauden jabari publikokoak, hirugarrenei kontraprestazioaren bidez lagatako higiezinak direnean izan ezik.

- Ondare ondasunak, hirugarrenei kontraprestazioaren bidez lagatakoak izan ezik.

8. artikuluko 5. paragrafoa honela geratzen da idatzita:

“5.- Lurralde Historikoko Higiezin Foru Katastroari buruzko 3/2016 Foru Arauko bigarren xedapen iragankorra kontuan hartu behar duten ondasun higiezin bereziei % 0,2ko karga tasa ezarriko zaie”.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

BIGARRENA.- Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hasierako onespen hau argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Laugarrena.- Hala badagokio, onestea udal jabari publikoa modu pribatuan erabiltzeagatik edo aprobetxamendu berezia egiteagatik ezarritako tasen ordenantza arautzailearen aldaketa.

Ikusita: Beharrezkoa da udal jabari publikoa modu pribatuan erabiltzeagatik edo aprobetxamendu berezia izateagatik ezarritako tasak arautzen dituen ordenantza aldatzea. Hori guztia aldazio publikoak espazio publikoan ezartzeagatik zergak ordaintzeari dagokionez eta fidantzen zenbatekoa eguneratzeari eta udal titulartasuneko bide publikoetan ibilgailu astunekin ibiltzearen ondoriozko erabilera pribatu edo aprobetxamendu bereziko erabilera arauari dagokienez.

Ikusita: 2019ko apirilaren 12an Informazio Batzordeak emandako aldeko irizpena.

Oinarria: Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 49. artikuluan ordenantzak onesteko ezarritako prozedura.

Osoko Bilkurak aho batez honakoa **ONETSI DU:**

LEHENENGOA.- Hala badagokio, onestea udal jabari publikoa modu pribatuan erabiltzeagatik edo aprobetxamendu berezia egiteagatik ezarritako tasen ordenantza arautzailearen aldaketa.

“A) epigrafeko testua: Udal bide publikoen lurzorua, lurgaina edo lurpea modu pribatuan erabiltzea edo aprobetxamendu berezia egitea” testuaren ordezkari jarriko da:

“1.- Zenbatekoa:

a.- Mahaiak, mahai hankabakarrak, aulkiak, eguzkitakoak edo antzekoak: 0.50 euro m²/hileko, gehieneko 70m².

B.- Hondakinak edo materialak eta aldarioak sartzeko edukiontzia: 15 euro/m² astean.

2 Kudeaketa arauak:

Baimenak edo lizentziak eskatu behar dira eta lizentziarekin edo baimenarekin bateragarriak diren erabileretan eta lizentziarik edo baimenik gabe egindako erabileretan hirigintza legerian ezarritako zehapenak aplikatuko dira”.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

“B) epigrafeko testua: Udal bide publikoak ibilgailu astunekin modu pribatuan erabiltzea edo aprobetxamendu berezia egitea” testuaren ordez hauxe jarriko da:

“1.- Zenbatekoa:

Ordenantza honetan araututako tasaren zenbatekoa 0,24 eurokoa izango da garraiatutako m³ bakoitzeko.

2. Kudeaketa arauak:

Ordenantza honetako aprobetxamendu arautzaileak direla eta bide publikoko bidezorian edo instalakuntzetan matxurak gertatuz gero, lizentziaren titularrek edo ordaindu behar dutenek egindakoak berreraikitzeke edo konpontzeko gastuak ordaindu beharko dituzte, eta edonola ere, horiek ez dira egindako aprobetxamenduengatik likidatutako eskubideen barne egongo. Horretarako, berme gisa fidantza ordaindu beharko dute, honako kopuruei jarraiki:

399 m³-ra arte. 1.950 euro.

400- 499 m³ artean: 2.148,90 euro.

500- 599 m³ artean: 2.735,20 euro.

600- 699 m³ artean: 3.125,20 euro.

700- 799 m³ artean: 3.906,50 euro.

800- 899 m³ artean: 4.492,80 euro.

900- 999 m³ artean: 5.079,10 euro.

1.000 - 1.199 m³ artean: 5.860,40 euro.

1.200 - 1.399 m³ artean: 6.640,40 euro.

1.400 - 1.599 m³ artean: 7.423 euro.

1.600 - 1.799 m³ artean: 8.204,30 euro.

1.800 - 1.999 m³ artean: 9.375,60 euro.

2.000 m³-tik aurrera: Gehikuntzako 99 m³ bakoitzeko, 9.375,60 euroko zenbatekoari % 10 gehituko zaio.

c) Tarifari dagozkion eta eskatu daitezkeen zenbatekoak eskatutako edo egindako aprobetxamendu bakoitzagatik likidatuko dira.

d) Ordenantza honetan araututako aprobetxamenduak jasotzeko interesa dutenek aurretiaz lizentzia eskatu beharko dute.

e) Lizentziarik ez duten erabilerak eta/edo emandako lizentziarekin bat ez datozenak zehapena jasoko dute, Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 225. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoei jarraiki”.

BIGARRENA.- Osoko Bilkurak erabaki dezan azaltzea, albo batera utzi gabe egokitzen jotzen duten bestelakoak onestea.

Bosgarrena.- Ekonomia eta aurrekontu informazioa



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Idazkariak 2019ko aurrekontuaren egikaritze egoeraren eta azken hiruhilekoko batezbesteko ordainketa aldiaren berri eman du.

Guztiak jakitun geratu dira.

Seigarrena.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.

- **42/2019 Dekretua.-** Kirolaren, euskara ikaskuntzaren, musika eskolaren eta haur eskolaren 2017-2018 ikasturteko diru-laguntzei buruzko ebazpena.

- **43/2019 Dekretua.-** 2019ko apirilaren 1eko Osoko Bilkuraren ezohiko bileraren deialdia.

- **44/2019 Dekretua.-** Familiei emandako diru-laguntzen ordainketa agindua, O/2019/13 zenbakiduna.

- **45/2019 Dekretua.-** Martxoko nominen ordainketa agindua, O/2019/14 zenbakiduna.

- **46/2019 Dekretua.-** Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraioa, Mugikortasuna eta Lurralde Kohesioa Sustatzeko Sailari diru-laguntza eskatzea “ Gauegiz Arteagako hiri antolamendurako plan orokorra egiteko idazketa eta aholkularitza zerbitzuko administrazio kontratua” izeneko kontratuaren % 40 egikaritzeko.

- **47/2019 Dekretua.-** M. C. A. E. andreari, ***7261** NAN zenbakidunari, aparkatzeko txartela ematea bost urterako.

- **48/2019 Dekretua.-** J. A. B. jaunari baimena ematea UA18 birpartzelazioaren 2.05. planoaren kopia eskuratzeko.

- **49/2019 Dekretua.-** J. A. B. jaunari baimena ematea UA 18 birpartzelazioaren proiektuaren kopia elektronikoa eskuratzeko.

- **50/2019 Dekretua.-** 2019ko apirilaren 28ko hauteskunde orokorrei buruzko ebazpena.

- **51/2019 Dekretua.-** 2019ko apirilaren 12ko Informazio Batzordearen ohiko bileraren deialdia.

- **52/2019 Dekretua.-** Gastu orokorren ordainketa agindua, O/2019/15 zenbakiduna.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

- **53/2019 Dekretua.**- 2019ko apirilaren 11ko Osoko Bilkuraren deialdia.

- **54/2019 Dekretua.**- 2019ko apirilaren 29ko Osoko Bilkuraren ohiko bileraren deialdia.

Guztiak jakitun geratu dira.

Zazpigarrena.- Tokiko Gobernu Batzordearen erabakien berri ematea.

- **16/2019.-** J. P. S. T. jaunari, ***6091** NAN zenbakidunari, obra lizentzia ematea Gauegiz Arteagako Kanala kaleko 42. zenbakian kokatutako etxebizitzan pergola bat eraikitzeko.

- **17/2019.-** M. A. R. jaunari, ***1208** NAN zenbakidunari, Telefonicaren izenean eta berau ordezkatzeko jarduten duenari, IFK A82018474, obra lizentzia ematea konponketa laginketa egiteko Gauegiz Arteagako (Bizkaia) Zelaieta kaleko 6. zenbakian.

- **18/2019.-** “Elizako erlojua konpontzea” zerbitzu kontratua Abiñari adjudikatzea, IFK 78899887C, 2019ko otsailaren 21ean sartu zen eskaintzagatik, (RE 423) 1.980,19 euroko zenbatekoan (BEZa barne).

- **19/2019.-** “Lau auzo/kale seinaleztatzea” hornidura kontratua Señalización Lacroix enpresari adjudikatzea, IFK A12329827, 2019ko otsailaren 26an sartu zen eskaintzagatik, (RE 465) 590,53 euroko zenbatekoan (BEZa barne).

- **20/2019.-** “Desfibriladoreen prebentziozko mantentzea” zerbitzu kontratu txikia Osatu, S. Coop enpresari adjudikatzea, IFK F48113161, 2019ko otsailaren 26an sartu zen eskaintzagatik, (RE 464) 1.980,19 euroko zenbatekoan (BEZa kanpo).

- **21/2019.-** “Parkean komun bat eraikitzea” hornidura kontratua Ilaiak, SL enpresari adjudikatzea, IFK B95750477, 2019ko otsailaren 22an sartu zen PR00333 eskaintzagatik, (RE 439) 14.586,07 euroko zenbatekoan (BEZa barne).

Guztiak jakitun geratu dira.

Zortzigarrena.- Galde-eskeak

Ez da horrelakorik egon.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

******* AKTA BUKATZEA**

Jorrazeko gai gehiago ez dagoenez, alkateak bertaratu izana eskertu ondoren bilera bukatutzat jo du goian adierazitako eguneko arratsaldeko zazpitan. Ondoren akta jaso da, eta hurrengo bileran onetsiko da. Udalbatzako idazkaria naizen heinean hori guztia ZIURTATU dut.

O.E

ALKATEA, IDAZKARIA

Sin.: Juan Felix Naberan Ozamiz
Aranguren

Sin: Amaia Abanzabalegui